

gaurkoan

Joxe Austin Arrieta Ugartetxea (\*)

zelatan

«Demokratak» omen dituk, hi

Ez diakiat nondik hasi ere, Josu. Hire itzala gogoan, hementxe, ezin hurbilago, eta nahigabearen korapilo mingotsa urdailean, ezarrian, erriak ere hozminduta hire presentzia irribartsu erraustuaren aurrean. Ez niake beste «planctus» bat idatzi nahi, baina alferrik, barruak oraindik horixe agintzen bait dit, barruak eta udazken berantetsi honetako ozkarbi epel dirdaitu honek, hik dagoeneko, anaia gazte, ezin dastatuzkoak...

Kronika bat egin beharko niake, agian, hik hain ongi menperatzen huen genero horretako saioeren bat. Baina traketsa nauk oso, horretan. Hire erraustak dizkiat gogoan etengabe, hire erraustak gure buruen gainera barreiatzen ari, Amaiurren, hire erraustak gure larmintzetan barrena muinetaraino sartuak. Eta Herri beti ere zanpatu honen intzirien oihartzun zaharrak oroimenean durundiaka: «Aramayori artu deusat gorroto/artuko dot esku batez gezia/ bestean suziri irazekia/ erreko dot Aramayo gutzia». Baina hago lasai, Irtazar, badiakiagu-eta «dardoak egin arren bere aldia/ Olaso dela gure egoteko aukia», edo, Axularren hitz zoragarrietan adierazita, «Mihiaren eskuan daude heriotzeta eta bizitzeta, gerra eta bakea». Badiakiagu zein den gure eginkizuna bakebiderako gerra latz honetan. Eta horretan giaudek, hago ziur. Zin egin genian bezala, hemen, hire adorea gure zelulentzat bizi-orea delarik, betidaniko eta betirako borrokarako prest. Hire orotzapen betierekoak kemena diaimaigukek.

Gutun modura-edo gauza batzu komentatu egingo dizkiat, lagun, besterik gabe: ez bertan bahengo bezala, baizik eta bertan egon hagoelako, zinez. Hara. Alcalá hotolean hi eta Iñaki tirokatu zintuztenez groztik, hi gure arteik herio-mugaz haraindi crauziz, gauza ikaragarriak gertatu dituk Euskal Herrian. Bere buruak «demokratizatzen» aldarrikatzen dituzten horiek dagoeneko aipatu ere ez haute egiten. Biaramonean bertan, telebistako programa batean (guri partehartzea ukatu egin zigutenean, noski), EAko ordezkari memelo batek hire heriotzaren «futilidad»-ea aipatzen zian, eguneroko bizitzak berdin jarraituko duela eta abar, ba'kik, «aquí no ha pasado nada» omen. Beste programa batean, PNVko bonzo nagusiak berak ezin hipotesirik deskarritzen ez zuela eman zian aditza pontifikalki, ohi

duen bezala, iradokiz ezen hire heriotza guk geuk, hire burkideok, jaukia genuela. EEko diputatu batek, berriz, monarkia bananera honetako Erregeri pleitesiazko bisita egin ondorengo deklarazioetan, bere «kontratuziazio» azaltzen zian mikrofono eta kamara guztien aurrean esanaz ezen pare bat egunetako suminaldia izana zela hire hilketatiko protesta herrikoia eta ordurako, «zorionez», urak bere onera itzuliak zirela, bare eta oxan. Lagin txiki bat besterik ez, Josu, mostrako botoi xume batzu. Zer esanik ez, Inperioko Parlamentuan gertatzen ari diren komerike buruz: makina bat barre-algara egingo hituzke, haien berri jakin ahal baheza. Bertara joan gitezzen nahi omen zian; bertara burbildo eta hi asasinatu, eta Iñaki ere bai ia-ia; hala ere gu bertaratu, eta haien larritasuna, motel: tramitezko gure formula hark Espainiako estamentu guztiak aidean jarri dizkik, gehiengo absolutuak eta historia/historia guztiak. Eta PNV-EA-EE trinitate kolaborazionista santuaren inbestidurako sermoiak irakurri ahal bahitza?... barregarria, hi, lotsagarria ez bailitz: «Santa Ajuria-Enea, ora pro nobis». Harro diabiltzak, gerra irabazten ari direlakoan, maldan behera goazelakoan, eta korso-patenteko kontratuen luzamendua izenpetu diate CESIDekin via PSOE: laster joango gatazkaik lagun bat edo beste kompania egitera Amaiurko haize garbieren hegoalan. Baina zeinen oker dauden... Ez dituk enteratu ere egiten. Ez diakitek, edo ez diate jakin nahi, euskaldunok —ez espainol eta ez frantses izan nahi ez dugun euskaldunok— askotan izan gara eta bentzutuak, baina inoiz ez behin betiko, eta, beraz, logika ezkutu baina irmo batez, irabazi dugula dagoeneko, gure erresistentzia dela, hain zuzen ere, garapenaren bermerik sendoena.

Beste zertzélada bat, Josu, erantzun koldar eta konplize hauen zerranda amaiezina nolabait amaitzeko. Beharbada punturik absurdoen eta, horrexegatik, iraingarriena: hire galera, hire fin gaizto kriminala, ba al dakik zerekin ari diren konparatzen hemengo «demokrazia»-ren bozeramaile ohoretuak, «inteligentsia»-ko kazetari eta intelektual txit prestatu? Ba, autobusekin, hi, eskaparteekin, kabina telefonikoekin. Ez, ez hadi harritu, hero-

rrek esana duk behin baino gehiagotan-eta zeharo herri surrealista batean bizi gara. Nonbait, askoz ere larriagoa omen duk aseguru-konpania aberats okituek ordainduko duten edozein kalte material hire heriotza baino; gainera, Iruñean eta Altzan gutxienez frogatu ahal izan zenez, kalte material ez —beharrezko horiek paisanoz jantzitako betikoek maltzurki —hots, ez defentsazko barrakadak eraikitzeko, hain juxtu— eragin zituztelarik. Baina, ba'kik, horrela pentsatzen diate «gure» ongipentsanteek: lehenik, etxafuego ximple batzu Sam-missilak direla esan, eta zaurien kausa postak izan zirela demonstratua-koan isil-isilik glditu, boterearen betiko ipurdi-garbitzaile alenok. Dena den, ez hadi kexa: «azukre-tontorra» eskaini dik hire kolega ospetsu batek bere «Eguna»-karian, pozoz kutsaturiko azukre-tontorra baldin bada ere. Noski, ez bait duk hirezat bakarrik, partid egin behar omen dituk azukre-tontorriak konnotatiboki hik heuk eran omen hituela berak dioen beste zenbait pertsonarekin, hartara hire heriotza mendeko bidezkoa izana ditekela iradokiz. Eta gero esango diate «sentitu» dutela hire heriotza, hipokrita ez bestek.

Guk bai, lagun, guk bai, burkide maitea. Berrehun eta hamazazpi mila euskaldun izan gintuan tirokatuak azaroaren 20ko gaueko 11ak eta hamarrea, Madrilo hotel hits horretan. Berrehun eta hamazazpi mila gutxienez, hi zuzenean hautatu hindugunok. Baina beste askok ere jan dik kolpea, espainiar imperialismo basatiaren kolpea. Bakea eragotzi nahi diate, gure Herriaren hondamendi eta menperatuzta behin betirakotu nahi diate. Baina alferrik diabiltzak. Ez duk erretorika hutsa, sinestak, ez duk sentimentalismo iraganokora: sekulan baino indartsuago giaudek aurrera jarraitzeko prest. Hautsiko diagu zerko, hedatuko diagu gure Herriaren autodeterminazio-eskubidean oinarrituriko mezua euskal gizarte osora, hik egin ohi huen bezala, tinko bezain samurki. Herri honek, orohar, zanpaketa, beldur, saldukeria eta txantxia guztien gaineik, euskaldun eta bere buruaren jabe izan nahi dik-eta. Berrero, Josu: agur, eta ez adiork, gudan dirakik, jogan diraukek. Bihar arte.

(\*) Idazlea

«L'abcés basque»

Giza-Eskubideen aldeko defendatzaile gaizta dugu Denis Langlois. Borroka nekagaitz hori dela bide, hain zuzen, aurtengo Giza-Eskubideen Saria jaso du berriki.

Hots, joan den Abenduaren 6an berriro mintzatu da ausarki «Le Monde»-egunkari ospetsuan (ikus «L'abcés basque» artikulua, 2. orrialdean).

Giza —eta herri— eskubideen errepertarizta helburu nagusitzat omen duten pertsonak eta instituzioak ez —jakinarena eta ez— entzunarena egiten duten honetan! Autodeterminazioaren eskubide sakratua azpimarratu eta gogorazi behareren, honen zapalketa nabarmena, askok, gehiegik, «demokrazia»-ren izenean gainera, onartzen dutenean; herri honen txiki-zioak bazterrak sobera harrotzen ez dituenean, miraria dirudi Denis Langlois-en ahotsak egia argi-eta-garbi Paristik beretik aldarrikatzek.

«Mendatarako gelditurik jotzen gunden Ekialdea» —dio Langloisek— «gotik behera uzkailli da zenbait egunetan; eta haro berrien esperantza piztu han eta hemen».

Mendebalde «demokratiko» honetan, berriz, eta «frantses-espainiar muga inguruan bereziki», denak dirau geldí eta tinko. Hiru miloi euskaldunen bizi-nahiarri Madrilék uko eginik, negarrak, sofrikarioak, heriotzak, hor daude beti, eguneroko sari hits gisa.

«Ez dut nik hiltzileekin sekula ezer eztabaidatuko» entzuten da berriro. Hots, dio Langloisek —«Kondairaren zaborteagan aurkitzen da maiz esaldi zozo hori... Garaia da, aitizik, Euskal Herriko bakearen aldeko Elkarrekin Internazionala luzagabe ireki dadin... gerrateen eta partiketa ondorio hutsa diren mugen ikutu-ezina, betirako ahantzi».

«Madarikazioari amaiera emateko, borondate oneko gizon batzu elkarrekin esertzea besterik ez da behar». «Nork pertsa dezake lipar batez ere —galdeitzen du Langloisek— Gernikako herriak bakea besterik bilatzen duenik?»

Egun eta aste larri hauetan, itxuraz argi-izpirik ezean mugildurik gaude-larik, esperantza sortzen dute Langloisen kastako gizonek. Biba zu! Adituko al zaituzte bederen!

TXILLARDEGI

hemeroteca

Navarra como problema antropológico y cultural

(Luis Maria Múgica en «El Diario Vasco», 9-12-89)

(...) Está claro que para muchos vascos Navarra es algo así como tierra irredenta. Es más, muchos nacionalistas han podido ejercer presiones desde el ángulo político por traer a Navarra al hecho político vasco, que se llama Euskadi. Para la ETA, por ejemplo, y los postulados de KAS, Navarra debe ser absolutamente vasca en el ámbito político.

Las reacciones a esa postura en amplios sectores navarros han sido evidentes: rechazo al hecho vasco, antivasquismo visceral de determinada derecha navarra, negativa de su entidad euskaldún, un reconocimiento, casi «a pesar», del euskara dentro de una territorialidad de

«reserva», sentimiento de odio a determinadas manifestaciones de la cultura vasca, etc. Creo que debe de quedar claro, que el respeto a la voluntad de los mismos navarros en el hecho de la integración en la entidad política de los demás vascos, llamada Euskadi, es primordial. No se puede obligar a nadie a ningún yugo... En orden a la verdad, hoy por hoy, partidos como EA, EE, PNV parecen respetar tal voluntad. Creo que todo navarro debe de saber tal posición, para desbloquear mutuos resentimientos. Y como tales partidos suponen la mayoría de la población vasca de las tres provincias hoy los hermanos de la periferia, en principio, no quieren hacer ninguna presión sobre la voluntad navarra. Para mí un ejemplo admirable de esa postura de respeto es el mismo Carlos Garaikoetxea, que siendo navarro (y demostrando claramente que se siente vasco y cree en un proyecto futuro de la gran Vasconia), de momento, respeta la voluntad de los mismos navarros.

Diálogo social

(«El País», 9-12-89)

Los dirigentes de los sindicatos y la patronal han iniciado, sin participación gubernamental, un nuevo proceso de diálogo social, con la prudencia lógica tras cinco años de desencuentros, iniciados pocos meses después de haberse firmado el Acuerdo Económico y Social

(AES) y sin que hubiera concluido la vigencia de ese pacto, suscrito también en 1984 por el primer Gobierno de Felipe González. Simultáneamente, los secretarios generales de UGT y CCOO han anunciado su intención de emplazar al presidente del Gobierno a iniciar el diálogo social que prometió en su discurso de investidura. El hecho de que Felipe González haya confirmado a todos sus ministros, incluyendo los que forman el equipo económico que encabeza Carlos

Solchaga, elimina la posibilidad de iniciar el diálogo pendiente con la victoria moral que para las centrales hubiera supuesto su sustitución. Una victoria que, paradójicamente, pondría en una situación de debilidad tal a la otra parte que habría imposibilitado el consenso. En resumen, la concertación social tiene mucho que ver con la correlación de fuerzas de los protagonistas; coyunturas de extrema fortaleza o de extrema debilidad impiden los pactos.

